

## **91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a**

### **34. ALDIZKARIA - 2023ko otsailaren 17a (4. Art., 5. Art., 6. Art., 11. Art. eta 12. Art.-en aldaketa)**

#### **13. ORDENANTZA**

#### **ORDENANTZA FISKALA, HERRIKO JABARI PUBLIKOKO ZORUAN, HEGALKINEAN ETA ZORUPEAN HORNIDURA ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEN APROBETXAMENDU BEREZIEN TASAK ARAUTZEN DITUENA**

##### **Oinarria.**

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

##### **Zergapeko egintza.**

2. artikulua. Zergapeko egintza dira toki entitateko jabari publikoko zoru, hegalkin eta zorupearen erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziak, hala nola hariak, hodiak eta galeriak, argi indarra, ura, gasa edo bertze edozein fluido eramateko; lineetarako zutoinak; kableak, horma-besoak, lotura, banaketa edo erregistorako kaxak, transformadoreak, burdin-barrak, baskulak, salmenta automatikorako makinak eta gisakoak, betiere herritar guztiei edo frankori eragiten dieten hornidura zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek egiten badituzte.

##### **Ordaindu beharra.**

3. artikulua. Tasa urtarrilaren 1ean sortuko da urtero, eta zergaldia urte naturala izanen da, salbu eta aprobetxamendua urte hartan hasi edo bukatu egin den kasuetan, orduan zergaldia horren arabera moldatuko baita eta kuota hainbanatuko.

##### **Ordaintzera behartuak daudenak.**

4. artikulua Enpresek, zergadun gisa, tasa ordaindu behar dute, baldin eta jabari publikoko lurzoru, hegalkin eta zorupearen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiten badute, uraz, gasaz, argindarraz, telekomunikazioaz (telefonía finkoa) hornitzeko zerbitzu publikoak edo gisako bertze edozein zerbitzu ustiatu beharrez, hura interes orokorrekoa denean edo herritar guztiei edo frankori eragiten dienean.

Horri dagokionez, zerbitzu horiek ematen dituzten enpresen artean sartzen dira banaketarako eta merkaturatzeko enpresak.

Enpresei aplikatuko zaie, bai hornidurak egiteko erabiltzen diren sareen titularrak badira, bai, sare horien titularrak izan gabe, sareak erabiltzeko, haietara iristeko edo elkar lotzeko eskubideen titularrak badira.

Sakelako telefoniako zerbitzuak ez dira sartuko tasaren zenbatekoa zehazteko araubide berezi honetan.

#### **Oinarriak, tasak eta tarifak.**

5. artikulua. Kuota emango digun tasa aplikatzeko oinarria, enpresek udal mugartearen barnean urtean lortutako fakturazioak emandako diru-sarrera gordinen arabera kalkulatu da.

Fakturaziotik heldu diren diru-sarrera gordintzat hartuko dira entitate bakoitzari egozten ahal zaizkion diru-sarrera gordinak, udal mugartean egindako hornidura zerbitzuen ordain jaso dituenak.

Ondorio horietarako, diru-sarrera gordinen artean ez dira sartuko egindako zerbitzuak kargatzen dituzten zeharkako zergak, ezta hirugarrenen kontura kobratutako partida edo zenbatekoak ere, baldin ez badira entitatearen diru-sarrera berekiak, alegia, tasaren zenbatekoa zehazteko araubide berezi hau aplikatzen zaion entitatearen diru-sarrera berekiak. Orobat, fakturaziotik heldutako diru-sarrera gordinen artean ez dira sartuko halako kopuruak ezen ordainetan jaso baitira Energia elektrikoa ekoizteko instalazioetarako Ekonomia Ministerioak daukan Erregistro administratiboko 1. edo 2. atalean inskribatuta dauden instalazioetan erabiliko diren hornidura-zerbitzuengatik, araubide berezi honen bitartezko zergapetzea izan dezakeen energia-sorkuntzarako beharrezko lehengai gisa.

Hornidurak egiteko kanpoko sareak erabiltzen dituzten enpresek beren fakturazioko diru-sarrera gordinetatik kenduko dituzte beste enpresa batzuei haien sareetara sartzeagatik edo haiekiko interkonektioagatik ordaindu dizkieten zenbatekoak. Sare horien titulartasuna duten enpresek kontzeptu horregatik eskuratzen dituzten zenbatekoak sartu beharko dituzte beren fakturazioaren diru-sarrera gordinetan.

6. artikulua. Tasaren zenbatekoa kalkulatzeko, %1,5 aplikatuko zaio aurreko artikuluan adierazitako zerga-oinarriari.

Tasa hauek bateragarri izango dira toki erakundearen eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak egiteagatik ezar daitezkeenekin. Aipatu enpresek izan beharko dute haien subjektu pasiboak.

#### **Kudeaketako arauak.**

7. artikulua. Hornidura zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziren bat egin behar dutenean, hori egiteko behar den lizentzia eskatu beharko dute.

8. artikulua. Erabilera edo aprobetxamendu hori egin ahal izateko obra egin behar denean, enpresek behar den obra lizentzia eskatu beharko dute.

9. artikulua. Erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak berekin dakartenean toki erakundearen jabari publikoaren suntsiketa edo narriadura, onuraduna, behar den tasaren ordainketa ukatu gabe, aipatu horiek berreraiki edo konpontzeko gastuen kostu osoa ordaintzera beharturik dago, baita aurretik zenbateko hori gordailutako uztera ere.

Gordailu hori ukituta gerta daitezkeen ondasun eta instalazio guztien balioaren arabera finkatuko da, hura zenbakietara ekartzeko udal teknikariak txostena alde zuzenetik eginda.

Enpresek aprobetxamenduak nola edo halako jarraikortasun eta aldiorotasun batez egiten badituzte, kudeaketa administratiboa erraztu ahal izateko, gordailu oso bat ezar dezaten itun daiteke, itunean ezarri aldietan ikuskatu eta aipatu aldietan aprobetxamendu horietan ustezko kalteen arabera haien zenbatekoa atera ahal izateko.

Indarra duen arautegia edo lizentziaren baldintzak ez betetzeagatik ezarritako zehapenekin lotu daiteke gordailua. Fidantza itzultzeko beharrezkoa izanen da alde aurreko txostena, non indarra duen arautegia eta lizentziaren baldintzak hertsiki bete eta zoladura behar bezala konpontzen den islatuko baita.

11. artikulua. Aitorpena aurkeztearekin batera, enpresek dagokien tasaren zenbatekoa sartu beharko dute aitorpenaren hiruhilekoaren ondoko hilabetearen Udalean berean edo horretarako ezarri erakundearen.

12. artikulua. Aitorpen-likidazioa aurkezteko edo diru-sarrera epearen barnean egiteko betebeharrak ez betetzeak berekin ekarriko du epe kanpo aurkezteagatik errekareruak edo premiamendu bidezkoak eskatu beharra, baita ikuskatzailera prozedura abiatzea eta horren ondoriozko zehapena paratzea ere, hala behar bada; hori guztia, Tributuei buruzko Foru Legearen aurreikusitakoari jarraikiz.